



BERGARAKO GAZTETXEAN AGERTUTAKO MEHATXUEN AURREAN

Bergarako gaztetxearen horman, pankarta bat azaldu da non gure Alkate ohi eta gaur egun EAJ-PNVko zinegotzia den Lurdes Idoiagaren argazkiaren ondoan hurrengo hau adierazten da: “ZU IZANGO ZARA ERRAUSTUKO DUGUN 1.ZABORRA”.

Oñatiko EAJ-PNVko udal taldea osatzen dugun zinegotziok mozio hau Udalbatzarraren aurrean aurkeztu dugu benetan larria eta bereziki gaitzesgarri eta salagarria iruditzen zaigulako bertan azaltzen duguna.

Bergarako Gaztetxean agertu den pankarta iraingarri, mingarri eta mehatxatzailearen aurrean ezinbestekoa da Udalbatza hau osatzen dugun udal-taldeek ahobatez, ezbairik gabe, kontrako jarrera garbi uztea.

Jazarpenaren, beldurraren, mehatxuaren garaiak gurean iragana direla egia bada, ezin daiteke inola ere ametitu, oraindik gogoan bizi-bizi dauzkagun jarrerak eta jokaerak ikusi eta horiekin bat egiten duen pankartaren aurrean, ixilik geratzea edo arbuiorik handiena ez agertzea.

Horren aurrean Udalbatza honetako kide garenok honako hau adierazten dugu:

- Gure gaitzespen erabatekoa azaltzen dugu Bergarako Gaztetxeko horman zintzilik dagoen Lurdes Idoiagaren aurkako pankartaren aurrean, ustez gainditutako garaien itzala gaurkotzen duelako, iraingarria eta mehatxatzailea delako, eta herri-ordezkarri baten kontra egiteak larritasun berezia duelako bere baitan, demokraziaren muina ezetxi egiten baitu.
- Bergarako Gazte Asanbladari exigitzen diogu, horrelako adierazpenak salatu ditzala eta bere gaitzespena publikoki azaltzeko.
- Ordezkatzen dugun herriaren izenean eta baita geurean ere, babesa eta laguntasuna adierazten diogu Lourdes Idoiaga andreari, eta hori horrela adierazten duen deklarazioa ezagutzera emango du Udalak bailarako komunikabideetan.

Diuhos Ald

2012/10 Irailaren 25an.